

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteazkena, 2011ko uztailaren 27a. VIII. urtea. 2.264. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## ‘Sputnik 11’, Tolosako lau taldek musika mundura jauzi egiteko diskoa

Bonberenea Ekintzak zigiluarekin kaleratu dute lana; Izaskun auzoko jaietan, irailaren 2an, aurkezpen kontzertua eskainiko dute ◦2



Diskoko aurkezpena, Izaskun jaiak aurkezteko baliatu zuten. I. URKIZU

## Lenin gailurra dute jomuga Tolosaldeko hiru mendizalek

Beste bost lagunekin batera abiatu dira Kirgizistan aldera, zazpimilakoa egin asmoz ◦5



EMAZ

→ **Jaierraldioen atzetik.** Igandea arte hamaika ekitaldi izango dira Villabonako Santio jaien barruan. Atzokoan ere herritarrek hainbat denbora-pasa izan zituzten: haurrentzako jolasak, pilota partidak, erraldoi eta buruhandiek kalejira, mus txapelketa... Gaurkoan haurrentzako tailerrekin hasiko dute eguna, 10:30ean. ◦4



FUNERARIA  
**VASCONGADA**  
EHORZKETAK

Larrea Poligonoa 34 - 1  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



**Gertu...**

VILLABONAKO  
HILETA ZERBITZUAK  
BETLATOKI BULABEA

**24 H..**

943 694 873



Ezkerrean, aurkezpen prentsaurrekoa eta eskuinean, *Sputnik 11*ren zuzeneko aurkezpen kontzertua. | URKIZU

# ‘Sputnik 11’ bilduma grabatu dute Bonberenean herriko lau musika taldek

Aurkeztu berri dituzten Izaskun auzoko jaietan izango da bildumaren zuzeneko aurkezpenetako bat

## Izaskun Urkizu Tolosa

Otsabi auzo elkarteak eta Bonbereneak *Sputnik 11* bilduma berria aurkeztu berri dute. Bonberenea Ekintzak zigilupean, eta pasa den maiatza eta ekaina artean, Switch, Indekitxen, Glaukoma Sound System eta Dolce Tangana musika talde tolosarrek *Sputnik 11* bilduma grabatu zuten. Sekula estudio batean sartu gabeko gazteek grabatu dute lana, eta diskari izenburua ere hortik dator. Izan ere, Sputnik izan zen, 1957an, historian jaurtiriko lehen satellite artifiziala. Era berean, Izaskun auzoko Sputnik plazaren inguruan dauden dorreek ere izen bera dute, eta herriko eraikin altuenak dira. Horrela beraz,

*Sputnik 11* izenaz baliatu dira, talde hauek musikaren mundura jaurtiko dituen lana baita osatu dutena.

Glaukoma Sound System taldeko Juantxo Arakama abeslariak azaldu zuzenez, «*Sputnik 11* ez da diska bat bakarrik, proiektu bat da». Metal, reggae, rock eta ska doinuak bildu dituen proiektua erreferentzia izan dadin lortu nahi dute partaideek, «gure atzetik etorriko diren taldeei ere baliagarria suertatuko zaiela espero dugu», dio Arakamak.

Lau musika taldeek, lagunartean egindako diska dela nabarmendu dute, eta bai Otsabik, bai Bonbereneak, musikaren alde betidanik egin izan duten apustuari erakusle bat gehiago dela esan dute, bie eskerrak emanez. Guztira zortzi abestik osatu dute *Sputnik 11* bilduma; talde bakoitzak bi kantu grabatu dituelarik.

Diska aurkezteko, bi emanaldi antolatatu dituzte. Lehenengoa pasa den larunbatean izan zen, Bonberenean. Zortzi euroko sa-

rerarekin batera, *Sputnik 11* diska jaso zuten bertaratuek. Talde bakoitzak ordu erdi inguruko emanaldia eskaini zuen. Bigarren emanaldia, berriz, datorren irailean ospatuko dituzten Izaskun auzoko festetan izango da, ostiraleko danborradaren ondoren.

Aipatzekoa da, *Sputnik 11* salgai izango dela 8 euroren truke, Tolosako Denak, Mescal eta Orbeta tabernetan, eta Bonberenean bertan. Horrez gain, eta diskaren arurrerapen txiki moduan, <http://www.myspace.com/sputnik11musika> helbidean zenbait abesti entzungai daude.

### Izaskun auzoko jaiak

Diskaren aurkezpena Izaskun auzoko jaiak aurkezteko ere baliatu zuten gazteek. Betiko moduan, iraileko lehen asteburuan ospatuko dituzte: hilaren 2tik 4ra.

Roman Goenagak, hiru aipamen nabarmendu nahi izan zituen, festen inguruan. Hasteko, bigarrena, igandeari presentzia han-

diagoa eman nahi izan dietela egitarauaren barruan. Otsabi elkarreko antolatzaileek. Horrela, toka eta mus txapelketak igandean egingo dituzte. Bestalde, kontzertuei dagokienez, «urrats bat gehiago ematen saiatu» direla aipatu zuten, eta larunbatean, Euskal Herri mailan punta-puntan dabilen hiru talde izango dira Tolosan: Zea Mays, Gose eta Fiachras. Azkenik, bigarren urtez batel desafioa izango dela ere azpimarratu zuten antolatzaileek. Aurten, gainera, 4 batel izango dira lehian, Nafarroako zubia-rena eta Berazubiko zubiaren arteko estropada eremuan.

Ostiraleko danborradari dagokionez, izen-emateak auzoko elkarteetan nahiz Denak tabernan egin daitezke. Gainera, egun berean, garai batean auzoko festetan zuten ohitura bat berreskuratzea nahi izan dute, eta 03:00ak aldera, kulero eta galtzontzilo lasterketa izango da.

Aurtengo beste berrikuntza bat auzoko dendetan jarri dituz-

## ↓ Egitaraua

### IRAILAK 2, OSTIRALA

- 18:00. Txupinazioa eta txokolate jatea (ondoren buruhandiak).
- 19:30. Trikipoteoa Albizturaren eskutik.
- 20:45. Danborrada afaria.
- 22:45. Danborrada Bonberenea Txarangarekin.
- 00:00. Kontzertua: *Sputnik 11* diskaren zuzeneko aurkezpena (Switch, Indekitxen, Glaukoma Sound System, Dolce Tangana).

### IRAILAK 3, LARUNBATA

- 10:00. Urmeentzako gosaria Sputnik plazan.
- 11:00. Haur jolasak.
- 12:00. Batel desafioa: Izaskun, Bonberenea, Bonberenea Sutan eta Otsabi.
- 14:00. Auzo bazkaria txarangarekin, Izaskun plazan.
- 19:00. Sagardo dastaketa pintxoekin.
- 21:00. Zahagi ardoa Izaskun plazan.
- 23:00. Kontzertua: Zea Mays, Gose, Fiachras.

### IRAILAK 4, IGANDEA

- 09:30. Tolosako Txistulari Bandarekin diana.
- 12:00. Toka txapelketa: gizonetakoak, emakumetakoak, haurrak.
- 14:00. Zahagi ardoa Izaskun plazan.
- 17:00. Izaskun auzoko Mus Txapelketa 2011.

ten kutxena da. Antolatzaileek kutxa horietan, diru laguntzez gain, auzotar nahiz herritarren iradokizunak, kexak edo proposamenak jaso nahi dituzte, datozen urteetan auzoko festak hobetze aldera.

Kutxa hauek ondorengo salgu-neetan egongo dira: Farmazian, Iturri kafetegian, Denak tabernan, Dionisin, Ogi Berrin eta Elko Tolosan.

Antolatzaileek, azkenik, Tolosako udalari, auzoko elkartei eta Bonbereneari eskerrak eman zituzten.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



## XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

**1. Saria**


Landetxe polit batean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia

**2. Saria**

Tolosako Karlis estudioan argazki erreportaje bat

**3. Saria**

Astelena jatetxean bi pertsonentzako otordua



Pertsonako argazki bakarra bidali daiteke [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera

Bidali zure argazkiak irailaren 5etik 23a bitarte!



Tolosaldea IKTko igerilariak Mallorcan. HITZA

## Marta Alonso igerilaria Espainiako txapeldunorde gelditu da bi probatan

Tolosaldea IKTko igerilariak Mallorcan jokatuak lehiaren egon dira, oro har maila ona erakutsiz

### Txema Zumarraga

Espainiako Junior Mailako Igeriketa Txapelketak jokatu dira 50 metroko igerilekuan, Mallorcan. Eskualdeko igerilariak bertan

izan dira, eta Marta Alonso tolosarra bigarren postuan gelditu zen 50 eta 100 metro tximeleta proban.

Tolosaldea IKTko Olaia Cuadrado ere maila bikaina erakutsi zuen, 200 metro bizkar proban, finalerako sailkatzea lortu baitzuen 2:29ko denborarekin. Beste hiru probatan ere lehiatu zen Cuadrado.

Itzaki Karrera lau probatan hartu zuen parte, eta 400 metro estiloetan, 4:48ko denbora egitea

lortu zuen. Alegiako Zuriñe Del Pozok, bizkar probetan aritu zen, 50, 100 eta 200 metrotako distantzian.

Maria Mansok erreleboetan hartu zuen parte, 4x100 proban, Tolosaldea IKTko beste hiru igerilariarekin batera. Hauek ere lan txukuna egin zuten.

Tolosaldea IKTtik igerilari guztiak zoriondu nahi izan dituzte Mallorcan jokatu diren Espainiako Txapelketetan egindako lanagatik.

## Irudia ◊



## AGIRRESAROBEBE, TOPERA

Aimar Agirresarobek eta Alberto Vaquerok emaitza bikainak lortu zituzten asteburuan jokatu zen Espainiako Distantzia Ertaineko Triatloi Txapelketan, Gasteizen. Agirresarobe tolosarra hirugarren postuan sailkatu zen, irabazlearengandik hiru minutura, 4:00:47ko denborarekin. Vaquero tolosarrak, aldiz, 30-34 urteko atleten artean, bigarren denborarik onena egin zuen, lau ordu eta 23 minutuko marka eginaz. HITZA

## → Laburrak

### Asis Sarearen otoitzaldia bihar, 19:30ean

**ERLIJIOA** › Asis Sarearen otoitzaldi bilkura egingo dute bihar, Tolosako Klarisen komentuan, 19:30ean. Asis Sareak, beren bilatze-bide pertsonalaren edo eguneroko fedearen bizipenean laguntza gisa espiritualtasun frantziskotarraren balioaren intuizioa dutenekin, bide zabal eta plurala jorratu nahi du.

### 'Jeiki, jeiki!' berri ere Aranburu jauregian

**KULTURA** › Nestor Ardanaz tolosar argazkilariren erakusketa arrakastatsua berri ere Aranburu jauregian jarri dute ikusgai. Erakusketa irailaren 20ra arte egongo da zabalik, asteartetik larunbatera, 17:30etik 20:30era.

### Tolosa Kantariaren entsegua bihar, 20:00etan

**KULTURA** › Tolosa Kantari taldeak bihar, hilak 28, euskal kantuen entsegua egingo du Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan. Uztailaren 30ean, aldiz, hileko azken larunbata izaki, kantuji-ran irtingo dira Tolosako kaleetan barrena, 12:00etan Tontokaletik abiatuta, eta oraingoan Udaberri dantza taldeko «txistulari beteranoek» hartuko dute parte. Abuztuak 6an, larunbatean, Lizarra Kantuzen parte hartzera joango dira. Autobusa antolatu dute horretarako. Izena emateko 667 63 54 38ra deitu behar da.

### Symionov taldearen emanaldia, Gau Giron

**KULTURA** › Gau Giro 2011 ekimenaren barruan, Symionov taldearen ikuskizuna egongo da hilaren 29an, 22:30ean, Euskal Herria plazan. Serbiako dantza folklorikoa ikusteko aukera da.

## AHTren informazioa zabaltzeko konpromisoa hartu du udalak

Tolosako udal ordezkariak 40 auzotar ingururekin elkartu dira proiektuaren inguruan hitz egiteko

### Erredakzioa

Abiadura Handiko Trenaren obrak Tolosara iritsi dira. Hori dela eta, Tolosako Udalak deituta, iragan ostegunean, hilak 21, bile-ra egin zuten San Esteban auzoko elkarteak, eta bertan, udal ordezkariarekin batera, 40 auzotar inguru bildu ziren gaiaren inguruan hitz egiteko asmoz. Bilkuran, al-

kateak eta udal teknikariak egotzen inguruko azalpenak eman zituzten, eta tolosarrek zituzten kezkek eta galderak erantzuten saiatu ziren.

Abiadura Handiko Trenaren proiektua udalaren eskumenetik kanpo dagoela argitu zuten hasteko. Baina, aldi berean, «udalak herritarrei jakinarazi nahi die, ahal duen neurrian, herrian eragin ditzakeen kalteak murrizten saiatuko dela».


Bestalde, hemendik aurrera, teknikari bat ariko da gai hau lan-tzen, eta bizilagunekin harremanetan egongo da, obrak aurrera doazen heinean, «unean uneko arazoei aurre egiten laguntzeko».

Amaitzeko zera azaldu zuten: «Udala irekia dagoela eta maiztasunez, batzarrak deituz, herritarrek informatzen joango dela».

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Adosatua.** Tolosan. Eguzkitzua. 4 logela, 2 bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, 2 autorentzako garrajea, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuek deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Hutsik egiten ari ez dena, euria

Gaur gazteek bazkaria egingo dute Berdura plazan; haurrek Korri, Xalto eta Brinko pailazoak izango dituzte, Arroan

23:00etan kontzertuak izango dira: Canteca de Macao, 121 Krew eta Jostion

## Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Atzokoan ere ez zuten eguraldia lagun izan billabonarrek. Hutsik egiten ez duena euria da. Hala ere, aurpegi ona jarri, eta festa giroan ibili ziren, egun guztian zehar. Atsedean egunaren aurretik, egun oso bat dute parrandarako.

Gaurko egunari, haurrek emango diote hasiera. Tailerrak izango dituzte 10:30etik aurrera, eta ingurumen kontzientzia izango dute gaitzat; auto bat egingo dute Txermin ikastolako arkupeetan. Eskulan erakusketa ere jarriko dute Gurea zineman.

Eguerdian, Onddo Gazte Asanbladaren eskutik kuadrilen arteko baltsa jaitsiera egingo dute. Kuadrila bakoitzak bere baltsa egin beharko du. Oria ibaian izango da, eta udaletxe atzetik Zubimuxurako bidea egin beharko dute. 14:00etan Berdura plazan elkartuko dira bazkaltzeko.

17:00etan, Orkestra Nacional taldearekin poteo kalejira egingo dute. 16:30ean, herri txirindulari lasterketa izango da Irrintzi Elkartearen eskutik, eta irteera zein helmuga Eroski parean izango da. 17:00etan, haurren tailerrean egindako auto berriaren erakustaldia egingo dute kalean. Ondoren, Korri, Xalto eta Brinko pailazoak izango dira Arroako plazan. Erraldoi eta buruhandien txanda 19:00etan izango da, eta Loatzo musika eskolako trikitilarien laguntzarekin Errebote plazatik abiatuko dira. 19:30ean txekor jatea eta sagardo dastatzea izango dira Zumbeltz elkartearen eskutik, Txermin ikastolako arkupeetan.

21:30ean bokata afaria egingo dute Berdura plazan, eta 23:00etan kontzertuen gauari hasiera emango diote. Canteca de Macao, 121 Krew eta Villabonako Jostion taldeak izango dira.



Errebote plazatik atera ziren buruhandi eta erraldoiak. A. MAIZ

## ↓ Egitaraua

### UZTAILAK 27, GAUR

#### GAZTE EGUNA

- 10:30. Haurrentzako tailerrak.
- 11:00. Eskularen erakusketa, Gurea Zinema kanpoan.
- 12:00. Kuadrilen arteko baltsa jaitsiera udaletxe atzetik Zubimuxura.
- 14:00. Bazkaria, Berdura plazan.
- 16:30. Herri txirindulari lasterketa.
- 17:00. Orkestra Nazional taldearekin poteo kalejira.
- 17:00. Haur tailerrean egindako auto berriaren erakustaldia kalean.
- 17:30. Pailazoak Arroako plazan, Entresaka taldearen eskutik. Korri, Xalto eta Brinko.
- 19:00. Erraldoi eta buruhandiak Loatzo Musika eskolako trikitilariarekin, Errebote plazatik.
- 19:30. Txekor jatea eta sagardo dastatzea, Txermingo ikastolaren azpian.
- 21:30. Bokata afaria, Errebote plazan.
- 23:00. Kontzertu Gaua, Errebote plazan. Canteca de Macao, 121 Krew eta Villabonako Jostion taldeekin.



Berdura plaza mus zaleen bilgune izan zen. A. MAIZ



Txermin ikastolako arkupeetan, jubilatutako asko bildu zen bazkaltzeko. E. MAIZ



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **bi afari pare** ditu

Villabonan izango den  
**Erromeria egunerako  
lau afari**

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



Uztailak 30 larunbata • 21:00etan Errebote plazan

harpidedunentzat  
**TXOKOA hitza**



Tolosaldeko hiru mendizale, beste bost lagunekin batera, Kirgizistan eta Tadjikistan aldera doaz. Bi lurraldeen artean dagoen zazpimilako bat igo nahi dute, garaiera horretan munduko ezagunena.

# Lenin gailurra dute helburu

Imanol Garcia

**Z**ortzi lagun eta erronka bat: Pamir mendietako Lenin gailurra, 7.134 metroko garaiera duena. Zortzi mendizale, tartean hiru Tolosaldekoak, abiatu ziren aurreko larunbatean Kirgizistan aldera. Herrialde horren eta Tadjikistanen arteko mugan dago Lenin gailurra izenarekin ezagutzen den mendia.

Tolosako Oargi mendi elkartearen izan da zortzien elkargunea. Elkarrekin antolatzen dituen ibilaldietan ezagutu zuten elkar, eta azkenean, mendiko kuadrila osatu dutela esan daiteke. Juan Manuel Serrano (Leaburu), Luis Sagastume (Amezketeta), Abel Larreta (Tolosa), Iñaki eta Joseba Iparragirre (jaiotzez ataundarrak, Joseba egun Ibarran bizi da), Urtzi Kalonje (Hernani), Iñigo Berasategi (Donostia) eta Lauri Urkiza (Ondarroa) dira espedizioan parte hartuko dutenak. 23 urtetik 40 urte bitartekoak dira.

## Mendi gosea

Luis Sagastume izan zen harra zabaldu zuena beste kideengan. Iaz Andeetan izan zen, Perun, ia zazpi mila metroko Huascaran mendia igotzeko asmoz. «Eguraldi aldetik nahiko gaizki zegoen Huascaran eta beste mendi batzuk egin genituen», dio Sagastumek. «Handik etorri eta segituan



Artzain nomada bat, urrunean Pamir mendiak dituela. HITZA



Juan Manuel Serrano eta Luis Sagastume, Oargi elkartearen. I. GARCIA

mendi gehiago egin nahi nituen». Serranok gaineratu duenez, «hasieran gutxiagok joan behar genuen, eta haraino joan behar genuenez, jende gehiago animatu zen». Horrelako bidaia batean joate-

ko zortzikoa kopuru polita dela diote. Gero mendiak eta egoerak berak zehaztuko dute nola joango den espedizioa. «Bat gaizki bada go eta ezin badu aurrera egin, beti egongo da aukera gehiago norbait berarekin egoteko», dio Serranok. «Horrez gain, kanpanlekuak jartzeko lana denen artean errazago egingo dugu».

Lenin gailurra ezaguna da mendizaleen artean. «Zazpi mila metrotatik gora izateko tekniko ki ez dela hain zaila esaten da», dio Sagastumek. «Hori bai, eguraldia nahiko gogorra izan daiteke, batez ere haize indartsua egoten delako».

## Gidarik gabe

Bere kabuz antolatu dute bidaia eta agentzia bat kontratatu dute zenbait zerbitzuentzako: «Agentziak sei aukera zituen, eta guk horietatik sinpleena aukeratu genuen: paperak egitea, oinarrikoa eta lehenengo kanpalekua berriak jartzea, eta medikua ere izango dugu, beste talde batzuekin banatuta. Hortik aurrera gure kontu ariko gara, gidarik gabe».

Bidea jakiteko arazorik ez dutela izango diote: «Jende asko joaten da, mendi horiek nahiko ezagunak dira-eta. Badakigu beste euskaldun batzuk ere joan behar dutela. Esaten dutenez, mundu guztian jende gehien joaten den zazpimilakoa da».

## Iker Karrerak marka berria ezarri du Pirinioetako hiru handiak igotzen

Aneto, Posets eta Monte Perdido igo zituen asteburu honetan 16 ordu eta 53 minututan

I. Garcia Amezketeta

Iker Karrera amezketarra denboraldi bikaina egiten ari da aurtengo mendia lasterketetan. Goi mailako hainbat irabazi ditu, eta horri asteburu Pirinioetan egindako marka gehitu behar zaio: mendikate horretako hiru handiak igo ditu jarraian 16 ordu eta 53 minututan. Besurtako aparkalekutik aterata zen eta Aneto (3.404 metro), Posets (3.371 metro) eta Monte Perdido (3.355 metro) igo ondoren Ordesako aparkalekura jaitsi zen. Guztira, 125 kilometro eta 7.000 metro aldapa gora. Anetoko gailurretik Monte Perdido igo gailurrera 13 ordu behar izan zituen.

Aurretik bi bizkaitarrek, Asier Irabazalek eta Gaizka Itzak, ezarri zuten marka, 2001ean. Orduan 30 ordutan egin zuten ibilbide osoa, eta 24 ordutan egin zuten hiru gailurren arteko bidea.

Karrerak bakarrik egin zuten korrikari. Goio Larrañaga epaileak bermatu zuen proba ondo burutu zuela. Amezketarraren hurrengo erronka Mont Blanc-eko mendia lasterketa izango da, abuztuaren amaieran.



## harpidedun izateak badu saria

### zozketa

#### 1 Bi sorta

**Arbizu hestebeteak**  
etxearen eskutik bi sorta

Arbizu • Tel.: 948-46 06 28  
www.embutidosarbizu.com  
www.euskalherrikoplaza.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



#### 2 Gargardoa

**Pagoa**  
Euskal Herri berriko garagardoa

Oiartzun  
Tel.: 34 619-42 11 53  
www.pagoabeer.com  
www.euskalherrikoplaza.com/pagoa



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

#### 3 Bi sorta

**Erlandere**  
Nafarroako ezti ekologikoaren bi sorta

La Regueta, 1 • Arbeiza  
Tel.: 686-37 32 41  
erlandere@hotmail.com  
www.euskalherrikoplaza.com/erlandere

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



#### 4 Bi elastikoa

**TTAK**  
etxearen eskutik bi elastiko

-Neska S-

www.euskalherrikoplaza.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen **TXOKOA hitza** info

## Osasun publikoaren aldeko ikurra jarriko dute udalean

Landa Eremuko Emakumeen Batzordeak egindako adierazpena atxiki da, aho batez, udala

**M. Ugartemendia** Altxo

Hilaren 19an Altxo Udalak egin zuen osoko bilkuran bi erabaki hartu zituen.

Alde batetik, alkateak proposa-

tu eta udalak aho batez erabaki zuen «Tolosaldeko Osasun Zerbitzu Publikoak murriztearen aurka» dagoela adierazteko, ikurra udaletzeko balioan jartzea.

Bestetik, 2004an Landa Eremuko Emakumeen Batzordea (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak sustatutako lantaldea) sortu zen.

2010. urtean landa eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu zen eta bertan honako adierazpen hau adostu zen: «El-

karteetan, nekazarien sindikatuetan, profesionalen elkarteetan, politikaren esparruan... eta azken finean, gizon-emakumeen etorkizuna erabakitzen den gunetan, gizonek eta emakumeek ez dutela baldintza beretan parte hartzen eta aurrerantzean hori horrela izan ez dadin aldarrikapena egiten da adierazpenean».

Altxoko Udalak ahoz batez adierazpen honetara atxikitzea erabaki zuen egindako azken osoko bilkuran.

## Irudia › Leaburu-Txarama



## SENIDETZA SENDOTZEKO LARRESORORA

Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, asteburuan Leaburu-Txaramako herritarrek «egun zoragarria» pasa zuten Larresoron. Hara iritsita-koan Ote Lore elkarteko kideen ongi etorri jaso zuten. Ondoren, hamaiketako eta herri kirolen txanda izan zen. Anjel Arrospidek bienbor moztu zi-

tuen, eta Aimar Irigoienek bi harrirekin egin zuen saioa. Jarraian, denak bazkaltzera joan ziren, bertsolari eta musikariekin alaiturik. Azkenik, oparien zozketa egin zen. Leaburu-Txaramako Larte Azpi elkartekoek, «eskerrak» eman nahi izan dizkie, festa honetan parte hartu zuten guztiei. HITZA

## Bake Epaile kargura aurkezteko epea zabalik dago

Bake Epaile titularra edo ordezkaria izan nahi duten herritarrek udalean eskaera orria bete behar dute

**M. U.** Berastegi

Bake Epaile titularra eta ordezkaria izendatzeko epea ireki dute Berastegin. Izendapena osoko bilkuran egingo dute, eta herritarrek izan behar dute.

Kargu hauek eskuratzeko interesa duten herritar guztiek, uda-

laren bulegoetan jo beharko dute, eta bertan eskaera orria bete beharko dute.

Izena emateko epea, hilaren 8an zabaldu zen eta abuztuaren 8an amaituko da.

Aipatutako epe hori amaitzen denean eskaerarik ez balego, osoko bilkurak baldintzak betetzen dituzten herritar guztien artean aukeraketa egiteko eskatasuna duela ohartarazi die herritarrei.

Behin hautapena eginda, erabakiaren berri Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiari emango zaio, honek izendapen formala egin dezan.

## → Laburrak

### Herri afarirako txartelak eskuratzeko azken egunak

**BERASTEGI** › Abuztuaren 5ean izango da herri afaria, eta txekorra burruntzian jan ahal izango da. 12 urtetik beherakoek 9 euro ordaindu beharko dute txartelak, eta beste guztiek 17 euro ordainduko dute. Txartelak Urepele Elkarteak, Zelai Tabernan eta Basurde Elkarteak daude salgai. Epea ostiral honetan bertan amaituko da.

### Haurtzat eta helduentzat ikastaroak

**LARRAUL** › Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak datorren ikasturterako helduei eta haurrei zuzendutako hainbat ikastaro proposatu dizkie herritarrei. Horien artean daude: eskulanak, euskal dantzak, barre-terapia... Ikastaroetan izena eman nahi dutenek 943 69 39 30 telefonora deitu beharko dute, edo Larraulgo Liburutegira azaldu beharko dute gaur 09:00etatik 13:00etara.

### Festa Batzordearen bilkura izango da, bihar

**IBARRA** › Ibarroko Udalak, San Bartolome jaien antolaketa-ekin jarraitzeko asmoz, hilaren 28an, bihar, 19:30ean Udala Pleno Aretoan egingo den Festa Batzordearen bilkuran parte hartzeko deialdia egin diete herritarrei. Gonbita luzatzeaz gain, herritar guztiak bertan parte hartzera animatu nahi izan dituzte.

### Behin-betiko batzordeak osatzeko bilera egingo da

**LEABURU-TXARAMA** › Pasa den astean lanean hasteko behin-behineko batzordeak osatu ondoren, behin-betikoak osatzeko eta herritarrek talde hauetan banatzeko bilera egingo da, gaur, 20:00etan gazte gelan. Herritar guztiak bertan parte hartzera animatzen ditu Leaburu-Txaramako Bilduk.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

**Alkateen elkarrizketak** →

E. MAIZ

**Pello Estanga** ◊ Anoetako alkatea

Oporrak pasa eta lanerako gogoz etorri da Peio Estanga Anoetako alkatea; herritarren babesarekin pozik agertu da, eta hauei, hasieran behintzat, pazientzia izatea eskatu die.

# «Jendea laguntzeko prest dagoela uste dut, baina motibatu egin behar da»

**Enertiz Maiz** Anoeta

Ekainaren 11z geroztik, Pello Estanga (Anoeta, 1962) da Anoetako alkatea. Zazpi zinegotzi eskuratu ditu Bildu koalizioak, eta oposizioan EAJ alderdiko bi zinegotzi izango dituzte. Alkatearen bulegoan eta paper artean murgilduta hartu du HITZA. Gauzak egiteko zenbat paper eta denbora behar den ikusita, «harrirituta» geratu dela azaldu du.

**Aste batzuk daramatzazue jada udalean. Zer moduz hasizarete lan berrian?**

Informazioa jasotzen ari gara, batak bat teknikariengandik. Alde horretatik oso gustura nago. Azken finean, beraiek urteak daramatzate hemen lanean, eta beraien aholkuak jarraituz ari gara. **Sartu eta segituan herriko festak izan zenituzten.**

Bai. Guztia prest zegoen, eta gu alde horretatik, lasai. San Joan Zortzikoa dantatzeko zinegotzi guztiok entseguak egin behar izan genituela, bestela, oso lasai eta oso ondo pasa ziren festak.

**Udalaren funtzionamendu guztia berria izango da zuzentzat...**

Taldeko inork ez du ezagutzen udalaren funtzionamendua, guztiak berriak gara. Uda partean pentsatzen dut denbora izango dugula trebezi pixka bat hartzeko.

ko. Irailerako behinik behin, gure buruak kokatu, eta ea gauzak martxan hobeto jartzen ditugun. **Nolatan animatu zinen alkatetzarako?**

Ezusteko bat izan zen niretzat. Prest nengoen laguntzeko, baina zerrendaburu izateko norbait behar zela esan zidaten, eta egun batzuk hartu nituen pentsatzeko. Burua alde batera utzi eta barruak zer esaten zidan ikusi nuen. Sartu behar banuen, leporaino sartzeko erabakia hartu nuen. Bizitzak aukera batzuk jartzen dizkizu, eta hau horietako bat da. Tren hau hartu ala ez izan da hartu behar izan dudana erabakia, eta seguru nago, eskaintza hau egin zidanari eskerrak eman beharrean izango naizela. Lana izango da eta jasoko ditugu belarrondoko batzuk, baina badakit esperientzia aberasgarria izango dela. Horregatik erabaki nuen aurrera egitea.

**Emaitza bikainak lortu dituzue hautakundean.**

Bai, zazpi zinegotzi eta oposizioan bi gaude. Nik uste dut Bilduk izugarrizko ilusio sortu duela, bereziki Gipuzkoa mailan. Apustu bat egin da, eta jendeak ere apustu hori oso garbi ikusi duela uste dut. Jende berria sartu gara politikan, eta guregan ere ilusioa sortu da. Herriaren alde, Gipuzkoa-

ren alde eta Euskal Herriaren alde lan egiteko orain da aukera, eta nik horrela jokatu nuen erabakia hartzerako orduan. Ea behingoz egoera demokratiko bat eta bakea lortzen ditugun. Taldekoak eta jende asko horrek bultzatu dituela uste dut.

**Herritarren babesa izateak lagunduko du, ezta?**

Bai, asko egiten du. Kalean bertan sumatzen da. Alde horretatik, oso pozik nago, eta babesa ikaragarria da. 'Hi zerbaite behar baldin baduk eskatu' edo 'Laguntzeko gaudek' esaldiak entzutea bakarrik, handia da. Ez da bera gure taldean bakarrik aritzea. Arazoren aurrean edo laguntza eskatzeko inongo gupidarik ez dugula izango eta gainera laguntza jaso egingo dugula jakiteak segurtasuna, ilusioa eta dena ematen du. **Anoetako Udalaren funtzionamendua zein izango da?**

Batzordeen bidez egingo dugu lan. Lehenik eta behin, herriaren zabalduko dugu zein batzorde izango diren, eta nola lan egiteko asmoa dugun. Gure asmoa, batzorde bakoitzarentzako lantaldea sortzea izango da. Batzorde bakoitzean bi zinegotzi izango dira. Abuztua ez da agian hilabeterik egokiena, baina jada hainbat eragilerek elkarrekin hasiko gara. Hirugarren adinekoekin

egoteko esaterako. Informatu egin nahi genituzke, eta atzetik etorriko dira gazte asanblada eta diren guztiak.

**Garrantzia izango du beraz, parte hartzeak.**

Niretzat oso garrantzitsua izango da batzordeetan jasotako babesarekin erabakiak hartzea, eta ez izatea taldean bakarrik hartutako erabakiak. Anoeta, ez dut esango eredu denik, baina parte hartzean jendea dezente inplikatzeko da. Ohitura dago, baina parte hartzean ez dago mugarik, eta zenbat eta jende gehiagok parte hartu, orduan eta hobeto izango da herriarentzat. Auzolanean, herriko festetan, kirolean, kulturaren,... jendea beti prest egoten da, baina areagotu egin nahiko genuke.

**Zeintzuk dira aurrera begira izango dituzten proiektuak?**

Hasita dauden proiektuei jarraitzea egitea izango da gure egitekoa. Lana dago horretan. Etxebizitza babestuek eta tasatuak egitekoak dira, eta uda honetan bertan hastekoak dira lehen fasekoak. Anbulatorioan ere berrikuntzak egin beharrean gaude, eta ea irailean hasteko moduan gauden. Auditoriuma ere oraindik guztiz osatu gabe daukagu. Erabiltzen ari da, baina hori bizitza eman beharko diogu. Anoeta

batean honelako eraikina edukitzea luxua da, eta ez dakit nola, baina etekina atera behar diogu. Lehenasunezko proiektua, behin betikoz Euskal Herri osoan libre bizitzeko eskubide guztiak lortzea izango da. Anoetatik ere gure esku dagoen guztia jarriko dugu. Argiune bat sortu da, eta zabaldu egin beharra daukagu. Zentzuz jokatuz, eredu izan behar dugu, eta esandakoa betetzea tokatzen zaigu. Herritarrek emandako konfiantza ez dela alferrikakoa izan erakutsi behar dugu.

**Zer eskatuko zenieke herritarrei?**

Oraingoz pazientzia pixka bat izatea eskatuko nieke. Irekiak egoera ere eskatuko nieke, zabalastu izatea gauza guztietarako. Erabakiak ez direla puntualak, baizik eta luzerako ikusi behar ditugula. Erabaki batzuk momentukoak izango dira, eta agian ez gustagarriak, baina aurrera begiratu behar dugu. Gustatuko litzaidake herritarrek parte hartzea, baina bere barrutik sentitu, eta herriari bultzada bat eman nahi izan diotelako. Oso maila altuan bizi izan gara, eta herritarrek gaur egun, hori ezin dela mantendu kontzientziatu beharrean gaude.

**Ezin da bide horretatik jarraitu.**

Ez, eta gainera hori oso pobrea dela uste dut. Etxe batean bezala da; eskatu eta eman, seme-alabei dena eginda ematen badiezu, beraiek ez dute ezer jorratzen. Hemen berdina izango da, udaletxean eskatutako guztia ematea ezinezkoa izango da krisi garai hauetan. Orain ez dago dirurik, eta irudipena erabili beharko da gauzak nola egin erabakitzeko. Alde horretatik, garai hau oso aberatsa ikusten dut, baina horretarako ere prest egon beharra dago. Hori eskatuko nieke, momentu hauek aprobetxatzea, eta irekiak izatea.

**Auzolanean deia luzatu nahi duzue.**

Bai, eta borondatez egitea. Mezua zabaldu egin beharko dugu, eta jendea iritsi egin beharko zaio. Kontzientzia ukitu beharko zaie herritarrei, komunikazioa aldeetik edo bertara joan eta hitz egitea. Nik uste dut jendea beti laguntzeko prest dagoela, baina motibatu egin beharra dagoela iruditzen zait. Gainera laguntzen duzunean ongi sentitzen zara. Nik behinik behin, horrela sentitzen dut, eta besteek ere sentituko dute. Bizitza joaten ari zaigu, eta orain artean nik neuk ere ezer handirik ezin izan dut egin. Familia aurrera ateratzeko lanean ari tu naiz. Orain ordea, bizitzako etapa berri baterako aukera dut. **Landa eremua, gizarte berbitzua, hirigintza, hezkuntza, ... garrantzia izango dute udalean?**

Orain arte bezala jarraitzen gaude diegu alor guztiei, eta teknikariak hor daude eta garrantzia izango dute udalean.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leizalde:** 687 410 118. leizalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

■ **Ibarra.** San Bartolome jaietako danborradaren laugarren entsegua egingo dute gaur, 20:00etan Kiroldegian.

**JAIAK**

■ **Villabona.** Santio jaiak igandera arte luzatuko dira. Gaurkoan 10:30etik aurrera izango dira ekitaldiak: eskulanean erakusketak, baltsa jaitiera, txirrindulari lasterketa, pailazoaren emanaldia... ikus gaurko egitarua 4. orrialdean.

**Agurrak**

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info



**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Ibarra.** L. Lejeune. Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

# Partida estuak, Joxean Tolosa Txapelketako bigarren saioan

Larunbat gaueko nagusien partida bertan behera geratu zen Jauregik behatzetako bat hautsi zuelako

**Rebeka Calvo** Amezketa

Amezketako Larrunarri pilotalekua pilotazaleez bete zen pasaden asteburuan, Joxean Tolosa Pilota Txapelketako bigarren jardunaldiko partidak ikusteko.

Larunbat gauean, dena den, nagusien Zarauzko Jauregiren eta Mallabiako Aldaperen arteko partida ezin izan zuten jokatu, Jauregin, bezperan, Zestoako Dinastia Etxabe Txapelketan behatzetako bat puskatu zuelako, eta antolatzaileek ez zutelako ordezkatzeko denborarik izan.

**Ostiraleko partidak**

Ostiraleko partidak 22:00etan hasi ziren, eta kadeteen Arteaga eta Alduntzinen arteko nor-



Larunbat arratsaldeko partidako une bat. HITZA

gehiagoka nabarmendu behar da. Burlatako Alduntzinek irabazi zuen, Lasartekoa 12 puntuetan utzita. Partida estua izan zen, eta tantorik politenak Lasarteko jokalariek egin zituen, Juan Mari

Arteaga pilotari profesional ohiaren semeak, hain zuzen. Egun berean ikusi ahal izan zen Goenatxo-Goñiren arteko lehia ere estua izan zen, eta Oria-Santxez partidaren Santxez modu erra-

zean aurreratu zen markagailuan.

**Larunbateko partidak**

Larunbatean aldez, bi saio izan ziren, eta beste bi 22:00etatik aurrera. Arratsaldeko partidetan Olanok erraz irabazi zion Donostiako Chiapusori, eta Ibarrondoren eta Larunberen arteko lehia estua izan zen oso. Arratsaldeko partidekin bukatzeko, Muguruzak 5 tanto besterik ezin izan zituen egin, Arzellusen aurka.

Gaueko partidei dagokionez, Lizarrako Garaio eta Tolosako Mujikaren arteko lehia izan zen aipagarriena. Kadeteen arteko norgehiagoka honetan, tanto politak ikusi ahal izan ziren. Garaio nafarra 1-13 galtzen hasi zen, eta hala ere, 13-14an jarri zuen markagailua. Azkenean ezin izan zuten tolosarra garaitu hala ere, eta partida polita eskaini zuten. Gazteen artean Alaegiako Zabalak ezin izan zuten Hernaniko Murgiondo garaitu, baina partida bikaina eskaini zuten.

Joxean Tolosa Pilota Txapelketako hirugarren jardunaldia asteburu honetan izango da. Partidak egun eta ordu beretan izango dira.

**↓ Emaitzak**

**OSTIRALEKO EMAITZAK**

■ **Kadeteak:** Goenatxo (Azkoitia) 15 eta Goñi (Iruñea) 18 batetik, eta bestetik, Arteaga (Lasarte) 12 eta Alduntzin (Burlata) 18.  
■ **Gazteak:** Oria (Zaldibia) 1, eta Santxez (Astigarraga) 18.

**LARUNBATEKO EMAITZAK**

■ **Goietako partidak**  
■ **Kadeteak:** Chiapuso (Donos-

tia) 5, eta Olano (Areso) 18, batetik, eta bestetik, Larunbe (Huarte) 14, eta Ibarrondo (Arrakundiaga) 18.

■ **Nagusiak:** Muguruza (Bergara) 5, eta Arzellus (Donostia) 18.

**Gaueko partidak**

■ **Kadeteak:** Garaio (Lizarra) 14, eta Mujika (Tolosa) 18.  
■ **Gazteak:** Murgiondo (Hernani) 18, eta Zabala (Alegia) 9.



Chiapuso eta Olanoren arteko lehia. HITZA

**XEHETASUN TXIENETAN ERE KALITATEA NAGUSI**



TOLOSA MOTOR, S.A.  
PEUGEOT KONZESIONARIOA  
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938  
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-308  
BERRIA



Ertrauskera zerbitzu berria martxan!  
Ertrauskera, labe proposatzen.